

Hondakinen kudeaketa: autonomia-erkidegoen arteko ezberdintasunak

María Luisa Cantonnet Jordi, Juan Carlos Aldasoro Alustiza
Unibertsitate Eskola Politeknikoko (EHU) irakasleak

Administrazio publikoak gero eta kezkatuago daude baliabide kopuru handiak xahutzeak sortzen dituen diru-galerak direla-eta. Bestalde, autonomia-erkidegoek, sortzen diren hondakinen inguruan, enpresei ezartzen dizkieten exijentziak ez dira berdinak izaten. Azterlan honek agerian jarri du autonomia-erkidego bakoitzean enpresa batek dituen lantokien eta kokapenaren arabera, hondakinak kudeatzeko tramite ezberdinak bete behar dituela. Berton, autonomia-erkidegoek hondakin gutxi sortzen dituzten ekoizleei ezartzen dizkieten exijentzien erkaketa azaltzen da (urtero 10 tona baino gutxiago ekoizten dituztenak, alegia). Horretarako, autonomia-erkidego bakoitzeko hondakinen kudeaketari dagokion araudia aztertu da eta ondorio honetara iritsi gara: Euskadik arlo honetan beste erkidego batzuek baino exijentzia-maila altuagoa du.

GAKO-HITZAK: Hondakinak · Araudia · Kudeaketa · Autonomia-erkidegoak.

Meanings, index-signs and performativity on a christmas ritual

Regional Governments (R.G.) in Spain are increasingly concerned about waste management models because of the amount of wasted resources and economic losses that companies generate. However, this study finds that companies with workplaces located in different regions are faced with different procedures with regard to waste management. This article compares the requirements of the R.G. to small waste producers (those that generate an annual amount of waste of less than 10 tonnes). The regulations on the matter were examined, concluding that the Basque Country is one of the most demanding R.G. in terms of waste management policies.

KEY WORDS: Waste · Law · Management · Regional Governments.

Jasotze-data: 2011-08-31. *Onartze-data:* 2012-01-10.

Sarrera

UNE-EN ISO 14001:2004 arauak honela definitzen du Ingurumen Alderdia: «Ingurumenarekin elkarreragiten duten erakundeen jarduera, produktu edo zerbitzuen elementu» (ISO, 1994). Enpresek hondakinak sortzeak (arriskutsuak izan edo ez) ingurumenean eragin negatiboa izateaz gain, Estatuentzat kostu ekonomiko handia suposatzen du. Europar Batasunak azpimarratu duenez, ingurumen-politikak hondakinaren artean eginiko hierarkiaren ikuspegitik garatu behar dira, hau da, hondakinak eragotzi beharko lirateke, eta eragotzi ezean, ahal den neurrian berrerabili, birziklatu edo errekuperatu egin beharko liratekeela adieraziz (Europar Komunitateetako Batzordearen Jakinarazpenak (COM (2005), 666) baliabideen kontsumo arduratsuan pauso bat aurrera eman du: hondakinaren prebentzio eta birziklapenari buruzko estrategia zehatza sortzea, hain zuzen ere).

Hondakinaren kudeaketa gure zuzenbide-antolamenduan araudi zabal eta askotariko baten bitartez arautua dago, eta autonomia-erkidegoen arteko arauak ez dira beti bat etorri izan. Zergatik? Autonomia-erkidegoek babespen-arau gehigarriak egiteko eskumena dutelako, Estatuak oinarrizko legedian ezartzen dituen exijentzia-maila baino altuagoak ezartzeko aukera dutelarik. Egoera honek, batzuetan, enpresa bat behartu dezake autonomia-erkidego desberdinetan dituen lantokien arabera hondakinak kudeatzeko tramite ezberdinak egitera, eta lantokia kokaturiko lurraldearen arabera, hondakinaren kudeaketa aurrera eramateko baldintzak nabarmenki aldatzen dira.

Egoera hau Europan gertatzen denaren isla besterik ez da, zeren, kide diren Estatu guztietarako komunitateko direktibak berak diren arren, arlo honetan eskumena duten erakunde publikoen artean, hondakinaren kudeaketari dagokionez, aldaketa esanguratsuak ikusten dira (Hondakinaren kudeaketari buruzko legedi komunitarioa aplikatzeko (COM (2009) 633) Batzordearen Txostena)

Artikulu honen helburua, Espainian autonomia-erkidegoen artean hondakinaren kudeaketari buruz dauden desberdintasunak aztertzea da. Horretarako, arlo honetan eskumena duten erakundeek hondakinak sortzen dituzten enpresei eskatzen dizkieten bete beharreko tramiteak alderatu dira. Zehazki esateko, hondakin gutxi (nahiz arriskutsuak nahiz ez-arriskutsuak izan) eratzen dituzten enpresei zuzendutako eskakizunak aztertu dira (urtero 10 tona baino gutxiago sortzen dituztenak, alegia).

Autonomia-erkidegoen arteko desberdintasun nagusia hauxe da: zenbait erkidegotan, Nafarroan, Valentzian, Madrilan edo Katalunian, besteak beste, arrisurik gabeko hondakinak eratzen dituzten enpresak ez daude erregistro batean izena ematera behartuta (hondakin ez-arriskutsuak sortzen dituztenen erregistroan), eta, aldiz, Euskadin, Galizian eta Aragoian, enpresak erregistroan izena ematera derrigorritu daude. Halere, autonomia-erkidego guztietan hondakin arrisurutsuak sortzen dituzten enpresa guztiak hondakin-sortzaile gutxiko erregistroan izena ematera behartuta daude euren NIMArekin (Ingurumen Identifikazio Zenbakia).

Hondakinen kudeaketaren inguruko araudia

Europar Batasunak hondakinen kudeaketaren eremu hau kontuan hartzen duen direktiba baten bitartez arautua du (2008/98/CE Direktiba, azaroaren 19koa), hondakin arriskutsuei buruzko direktiban (78/319/CEE Direktiba, martxoaren 2koa) eta hondakinak garraiatzeko barne-araudian (CE 1013/2006 Erregelamendua, ekainaren 14koa).

Europako Hondakinen Katalogoan (EHK), (2000/532/CE Erabakian, maiatzaren 3koan, onartua) sor daitezkeen hondakinak sailkatuta eta kodetuta agertzen dira. Ezagupen berrien arabera aldizka erreibisatzen den zerrenda harmonizatua da.

Europako araudiaren transposizioa gure lege-antolamenduan apirilaren 21eko 10/1998 Hondakinen Legearen bitartez aurrera eramán da, Espainian aplikatu beharreko oinarritzko erregimena ezarriz. Lege horrekin, zuzenbide-antolamenduan Europar Batzordeak martxoaren 18an onarturiko 91/156/CEE Direktiba erantsi zen, ordura arte hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen arteko sailkapena ezabatuz eta denentzat araudi bera ezarriz. Hala ere, apirilaren 21eko 10/1998ko Hondakinen Legea duela denbora gutxi indargabetu da, eta haren orde, 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, indarrean jarri da.

Hondakinen 10/1998 Legearen arabera, hondakin moduan, «lege honen eranskinean aipatzen den edozein substantzia edo gauza kontsidera daiteke, eta beronen jabeak alde batera utzi edo uzteko asmoa edo beharra duena». Edonola ere, hondakinak izango dira Europako Hondakinen Katalogoan (EHK) ageri direnak, maiatzaren 3an Batzordeak onarturiko 2000/532/CE Erabakiaren arabera.

MAM/304/2002 Aginduak, otsailaren 8koak, zeinak hondakinen balorizazio eta eliminaziorako egin beharreko lanak eta hondakinen europar zerrenda argitaratzen dituen, 3. atalean arauak eta erreferentziak aipatzen ditu, Hondakinen Europako Zerrenda eta hauen balorizazio eta eliminaziorako egin beharreko eragiketak, hain zuzen ere.

Bestalde, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak, ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuak aldatuak, non 20/1986 Legea gauzatzeko barne-araua onartzen den (Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Oinarritzko Araua), hondakin toxiko eta arriskutsuak identifikatzeko sistema bat ezartzen du. Sistema horren funtsa, kode multzo bat erabiliz edozein momentutan hondakinak identifikatu ahal izateko informazioa ematea da, hondakinari buruzko aitorten-orria informazio osagarri bezala erabiliz.

Errege Dekretuan azaltzen diren zazpi tauletan, osotasunean erabiliz, hondakinak ezagutu eta identifikatu ahal izateko kode zenbakidunak ematen dira, eta ondorioz, hauek ekoizten diren momentutik alde batera uzten diren arte kontrolatzeko aukera errazten dute. Potentzialki arriskutsuak diren ezaugarriak (H), jarduera (A) eta hauek sortzeko prozesua (B) ezagutarazten ditu, hondakinak kudeatzearen beharra (O), zein taldetan sailka daitezkeen (L, P, S, G), nola kudeatzen diren (*b/R*) eta hauen osagai nagusiak (C) zein diren jakiten laguntzen du.

Oinarrizko legedi hau hondakin mota ezberdinak dituzten arau espezifikoekin osatzen da.

1. taula. Arau espezifikoa.

ARAUDI ESPEZIFIKOA
106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pila eta metagailuei buruzkoa, eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa.
105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntzako hondakinen ekoizpena, kudeaketa eta eraispena erregulatzen dituena.
34/2007 Lega, azaroaren 15ekoa, airearen kalitatearen eta atmosferaren babespenaren ingurukoa.
228/2006 Errege Dekretua, otsailaren 24koa, abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua aldatzen duena, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta haiiek dituzten gailuak eliminatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena.
679/2006 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, erabilitako olio industrialen kudeaketa arautzen duena.
208/2005 Errege Dekretua, otsailaren 25ekoa, gailu elektriko eta elektronikoei buruzkoa, eta haien hondakinen kudeaketari buruzkoa.
1619/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, erabilgarri ez diren pneumatikoen hondakinen kudeaketari buruzkoa.
653/2003 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, hondakinen errausketari buruzkoa.
1383/2002 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuen kudeaketari buruzkoa.
1416/2001 Errege Dekretua, abenduaren 14koa, landare-osasunerako produktuentzako ontziei buruzkoa.
11/1997 Legea, apirilaren 24koa, ontzi eta ontzien hondakinei buruzkoa.
1310/1990 Errege Dekretua, urriaren 29koa, nekazaritza-sektorean arazketarako lohien erabilera arautzen duena.

Iturria: autoreek egina.

Hondakinen kudeaketaren inguruan eskumenen banaketa

Hondakinen kudeaketari dagokionez, eskumenen banaketak honako eskema honi jarraitzen dio:

1. Estatuko Administrazio Orokorrari nazio mailako hondakinen plangintzak egitea dagokio, Europar Batasuneko herrialdeetatik edo Batasun horren barnean ez dauden beste herrialdeetara hondakinak garraiatzeko baimena ematea eta ikuskapena ere dagozkio.

2. Autonomia-erkidegoen eskumenak dira:

- Hiriko hondakin solidoen esparruko plangintza egitea, eta ontzien kudeaketarako sistema integratuen nahiz ontzizko hondakinen kudeaketaren baimentzea, ikuskaritza egitea eta zigortzea.
- Hondakin arriskutsu eta bestelako hondakinen plangintza nagusiak egitea, non autonomia-erkidego bakoitzean dauden erakunde publiko nahiz pribatuek euren ekoizpen eta kudeaketa plangintza horietan ezarritako ildoetara egokitu beharko duten.
- Hondakin arriskutsu eta bestelakoentzat baimenak ematea, hondakinak kudeatu ahal izateko behar diren azpiegituren kokapen, ezarpen eta ustiapenerako baldintza teknikoak definitzea, eta ingurumen-ikuspegia kontuan hartuz hondakinen kudeaketarako sortu berri diren sistemak balioztatzea.

3. Foru-aldundiak hondakin solidoen kudeaketa koordinatzeaz arduratzen dira, nahiz hirikoak nahiz geldoak izan, euren fase guztietan, bildu aurretik, bilketa egitean, garraioan eta tratamenduan, hondakinen jatorrian prebentzioa eta gutxitzea sustatuz eta haien berrerabilera. Hondakin birziklagarrien bilketa selektiboa bultzatzen dute, eta haien birziklagarritasuna gauzatzen dute; zaborteziak eta leku andeatuak errekuperatzeko ekintzak aurrera eramaten dituzte.

4. Udalek, euren kasa edo mankomunitatetan elkartuz, derrigorrezko zerbitzu bezala, hiriko hondakinen bilketa, garraioa eta deuseztapena burutu behar dituzte, udal-ordenantzetan erakunde bakoitzak ezartzen duen moduan.

Laburtuz, hondakinen esparruan Estatuaren eskumenak arautzaileak dira (oinarrizko legedia ezartzen dute). Hondakinen arautegiaren aplikazioa (estatu mailako oinarrizko legedi eta erkidego mailako garapen-legediaz osatua) autonomia-erkidegoei dagokie oro har, baita toki-administrazioen erakundeei ere (hiri-hondakinei dagokienez bereziki), euren artean, eta baita agente pribatuekin ere, lankidetzaren hitzarmenak ezarri ahal izango dituzte euren beharrak ahalik eta hobekien bete ahal izateko. Udal-erakundeek, dagozkien eskumenen artean, ordenantza eta arauak ere sor ditzakete.

Eskumenen banaketa-sistemaren funtzionamendu egokia bermatu ahal izateko, administrazioek lankidetzan eta koordinazioan oinarritutako printzipioen menpe lan egin behar lukete (Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 art. eta 148.1.9 art.; eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. eta 4. art., Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Prozedura Administrazio Arrunta arautzen dutenak).

Hondakinen garraiorako prozedura

Autonomia-erkidego guztietan hondakinen garraiorako prozedura berdina da. Ondoren, eta modu eskematikoan, hondakin arriskutsuak nahiz ez-arriskutsuak garraiatzeko pausoen berri ematen da.

Hauek dira hondakin arriskutsuak garraiatzeko eman beharreko pausoak:

1. Eskaeraren onarpena. Hondakin-ekoizleak, hondakinak jatorriko tokitik kudeatu behar diren lekura eraman baino lehen, kudeatzailearen onespren-konpromisoa dokumentuz jaso behar du (OD).
2. Onarpen-eskaerari erantzuna. Kudeatzaileak hondakinak onartuz gero, eskaera jasotzen duenetik hilabete bateko epean gehienez, hondakinak onartu dituela eta bere baldintzak adierazi beharko ditu dokumentu batean. Eskaera ukatzen badu, epe berean, ukatzearen arrazoien berri eman beharko dio ekoizleari.
3. Aurreoharpena. Hondakinen ekoizleak edo hondakinak jasoko dituen bitartekariak, garraiatu aurreko hamar eguneko epean gutxienez, autonomia-erkidegoan dagoen ingurumen-erakundeko arduradunari hondakinak garraiatu behar direla azalduz oharra bidali beharko dio (AO).
4. Garraiolaria. Kudeatzaile autorizatuak hondakina jasoko du.
5. Garraiatzeko dokumentuaren formalizazioa. Ekoizleak, garraiolariak eta hartzaileak kontrol- eta jarraipen-dokumentuaren formalizazioan parte hartuko dute (KJD), bakoitzak burutzen dituen jardueren arabera dagokion zatia bete beharko du.
6. Igorle, ekoizle edo bitarteko kudeatzaileak (KJD) dokumentuaren kopia gordeko du, eta beste kopia bat hondakinak ekoizti diren autonomia-erkidegoko ingurumen-erakundeari bidaliko dio.
7. Jasotzaileak KJDren kopia jasoko du eta horren kopia bat hondakin-jasotzailea dagoen autonomia-erkidegoko ingurumen-erakundeari bidaliko dio (hondakinen garraioa autonomia-erkidegoen artean izaten den kasuan).
8. Espedientearen kopia jasoko da (5 urte).

Hondakin ez-arriskutsuen kasuan, honako prozedura honi jarraituko zaio:

1. Onarpen-eskaera. Hondakin-ekoizleak, hondakinak jatorriko lekutik kudeatu behar diren tokira eraman aurretik, kudeatzaileak onartu duen konpromisoa dokumentu batean azaldu behar du (OD).
2. (OD) Hondakin ez-arriskutsuen onarpen-dokumentua.
3. (KJD) Kontrol- eta jarraipen-dokumentua. Garraiatu behar den hondakin bakoitzaren datuak jasotzen dituen dokumentua da. KJD ekoizleak bete behar du, hondakinari buruzko datuak eta haren garraioa azaldu behar ditu. Ondoren, kudeatzaileak dokumentu hau osatuko du jaso/onartu dituen benetako kantitateak azalduz.
4. Kudeatzaile autorizatuari kopia bidaltzea.

Autonomia-erkidegoen arteko ezberdintasunak

Ondoren, zenbait autonomia-erkidegotan hondakin-ekoizle txikiei hondakinak kudeatzeko eskatzen zaizkien baldintzen azterketa egin da.

Nafarroako Foru Erkidegoa

Nafarroako Foru Erkidegoan ez da beharrezkoa hondakin ez-arriskutsuen ekoizle bezala inongo erregistrotan izena ematea, baina bai, ordea, hondakin arriskutsuen ekoizle txiki bezala izena ematea.

Hondakinen garraiorako administrazioarekin bete beharreko tramiteak modu telematikoan egiteko aukera dago. Horretarako, txartel edo ziurtagiri digitala ezinbestekoa da. IZENPEk igorritako txartela ere erabil daiteke (2002an Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundien bitartez sorturiko egiaztatze- eta zerbitzu-enpresa da) edo baita MTFNk igorritakoa ere (Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionala) Espainiako estatuko gainerako lurraldeetan onartua.

2. taula. Nafarroako Foru Erkidegoko araudi espezifikoak.

LEGEA	Legezko baldintza
23/2011 Foru Dekretua	Nafarroako Foru Erkidegoaren lurralde-eremuan eraikuntzako hondakinen ekoizpen eta kudeaketa arautzen du.
312/1993 Foru Dekretua	Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroa sortu eta arautzen du.

Iturria: autoreek egina.

Galiziako Autonomia Erkidegoa

Autonomia-erkidego honetan derrigorrezkoa da bai hondakin arriskutsuen bai ez-arriskutsuen ekoizle bezala izena ematea.

Galiziako Xuntak tramiteak modu telematikoan burutu ahal izateko herritar eta enpresentzat SIRG sistema eskuragarri jarri du. SIRG, Galiziako hondakinen kudeaketaren inguruko informazioa jasotzeko, herritarrek, enpresek eta administrazioek erabil dezaketen ataria da.

Administrazio elektronikoaren zerbitzuak erabiltzeko tramite telematiko gehienetan bezala, herritarrek eta enpresek erakunde ziurtatzaileetako batek igorritako ziurtagiri elektroniko baten beharra dute.

Autonomia-erkidego honen kasuan, onartua den ziurtagiri digitaletako bat, Moneta eta Tinbre Fabrikak igortzen duena da (MTFN).

3. taula. Galiziako Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
10/2008 Legea	Galiziako hondakinak.
174/2005 Dekretua	Hondakinen ekoizpen eta kudeaketarako erregimena eta Galiziako Hondakin Ekoizle eta Kudeatzaileen Erregistro Nagusia arautzen ditu.
59/2009 Dekretua	Hondakinen trazabilitatea arautzen du.
2009ko uztailaren 20ko Agindua	Galiziako hondakin-ekoizleek hondakinak minimizatzeko aurkeztu beharreko azterlanen edukia arautzen du.
2005eko ekainaren 2ko ITR/01.0/04	Hondakinen instrukzio teknikoa, Dirección Xeral de Calidade e Avaliación Ambientalek igorria, apainketarako erabiltzen diren harriak egiteko kudeaketaren inguruan.

Iturria: autoreek egina.

Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa

Erkidego honetan hondakin-ekoizleek hondakin arriskutsuen erregistroan izena eman beharra dute, baina hondakin ez-arriskutsuen ekoizleen kasuan, ez da beharrezkoa.

Horretaz gain, bi erregistro mota daude, bat probintzia mailakoa eta beste erkidego mailakoa.

4. taula. Gaztela eta Leon Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
1997ko maia- tzaren 19ko Agindua	Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Kontseilaritza, ekoizle txikiek hondakin toxiko eta arriskutsuak jasotzeko erabili beharreko kontrol eta jarraipenerako dokumentuak.
1994ko aza- roaren 22ko Agindua	Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Kontseilaritza, zeinak Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Lurralde Zerbitzuetako zuzendariengan hondakin arriskutsu txikien ekoizleen erregistroan enpresen izen-ematea eskuordetzen duen.

Iturria: autoreek egina.

Madrilgo Autonomia Erkidegoa

Autonomia-erkidego honetako araudiaren arabera, hondakin arriskutsu gutxiko ekoizle moduan izena ematea derrigorrezkoa da, baina hondakin ez-arriskutsuen kasuan ez, ordea.

Internet bitartez eskaera eta dokumentazioa aurkeztu ahal izateko, eta Kontseilaritzaren Erregistro Telematikoa erabili ahal izateko, Madrileko Erkidegoak onaturiko ziurtagiri elektronikoren bat edukitzea beharrezkoa da.

5. taula. Madrilgo Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
Urtarrilaren 10eko 4/1991 Dekretua	Madrilgo Autonomia Erkidegoko Hondakin Toxiko eta Arriskutsu Gutxiko Ekoizleen erregistroa sortzen da.
2009ko abenduaren 10eko Ebazpena	Zenbait prozedurari dagozkien espedienteen tramitazioa modu telematikoan egin ahal izateko, Ingurumen, Etxebizitza eta Lurralde Antolamenduaren Kontseilaritzak Erregistro Telematikoan antolatzen du.
2010eko apirilaren 5eko Ebazpena	2009ko abenduaren 10eko Ebazpenean antzemandako zenbait akats zuzentzen ditu.

Iturria: autoreek egina.

Aragoiko Autonomia Erkidegoa

Autonomia-erkidegoko bi erregistro hauetan izena emateko bi formulario mota daude, bat erregistro bakoitzarentzat. Hondakin arriskutsuen ekoizleei ondorengo datuak eskatzen zaizkie:

1. Enpresa eta lantokiaren datu orokorrak.
2. Prozesuei buruzko datu espezifikoak.
3. Hondakinei buruzko datu espezifikoak.
4. Instalazioek duten oinplano-banaketa.
5. Jarduerak azaltzen dituen memoria edo txostena.

Hondakin ez-arriskutsuen ekoizlearen erregistroari dagokionez, eskatzen diren datuak honako hauek dira:

1. Enpresa eta lantokiaren datu orokorrak.
2. Prozesuei buruzko datu espezifikoak.
3. Hondakinei buruzko datu espezifikoak.
4. Instalazioek duten oinplano-banaketa.
5. Jarduerak azaltzen dituen memoria edo txostena, Aragoiko Gobernuaren 2/2006 Dekretuaren 11.1 artikulua arabera.

Autonomia-erkidego honetan ere, lekualdaketarako bete beharreko tramite eta jakinarazpenak modu telematikoan egiteko aukera dago. Zerbitzu horretara sartzeko lotura Aragoiko Gobernuaren web orrian dago, zerbitzu telematikoetan, eta aplikazio horretarako sarbidea ziurtagiri digital edo erabiltzaile-izen baten eta gako baten bitartez egin daiteke.

6. taula. Aragoiko Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
2005eko urtarilaren 11ko Akordioa	Aragoiko Autonomia Erkidegoko Hondakinen Kudeaketarako Plangintza onartzen da.
Urtarrilaren 10eko 2/2006 Dekretua	Aragoiko Autonomia Erkidegoan, hondakin industrial ez-arriskutsuen ekoizpen, edukitze eta kudeaketarako, eta balorizatzeko aukera ez duten hondakin industrial ez-arriskutsuen eliminaziorako zerbitzu publikoaren lege-erregimen araua onartzen da.

Iturria: autoreek egina.

Kataluniako Autonomia Erkidegoa

Autonomia-erkidego honetan, hondakin ez-arriskutsuen ekoizleek ez dute izena eman beharrik inongo erregistroan. Bestalde, hondakin arriskutsuen ekoizle bezala izena ematea oso erraza da beste autonomia-erkidego batzuekin konparatuta. Telematikoki egin daiteke, Kataluniako Generalitatearen web orritik, erkidego honetako hondakinak kudeatzen dituen agentziara sartuz. Beste erkidego batzuetan ez bezala, OD ez da eskatzen, ez proiektua, ezta lantokiko jarduera-txostena ere.

7. taula. Kataluniako Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
1/2009 Legegintza Dekretua	Hondakinen Lege arautzailearen testu berritua onartzen da.
Abenduaren 4ko 20/2009 Legea	Jardueren ingurumen-arloko prebentzio eta kontrola.
Apirilaren 6ko 93/1999 Dekretua	Hondakinen kudeaketarako jarraituko beharreko prozedurak.
Ekainaren 13ko 16/2003 Legea	Hondakinen tratamendurako azpiegituren finantzaketa eta hondakinak edukitzeagatik ezartzen den kanona.

Iturria: autoreek egina.

Valentziako Autonomia Erkidegoa

Erkidego honetako hondakin-ekoizle diren enpresek ez dute hondakin ez-arriskutsuen kasuan erregistroan izena eman beharrik. Hondakinak arriskutsuak diren kasuetan soilik hondakin-ekoizleen erregistroan izena ematera behartuta daude.

Izen-emate hau egin ahal izateko, Estatuko Administrazio Orokorreko edozein organo administratiboren erregistroa jo behar da, edo autonomia-erkidegoetako edozein organotara, edo toki-administrazioa osatzen duten erakundeetatik edozeinera, azken kasu horretan, betiere haien artean alde zuzenetik hitzarmena sinaturik balego, baita ordezkartza diplomatiko edo Espainiak atzerrian dituen edozein kontsul-bulegotara ere. Postetxeko edozein bulegotara ere bai.

Hondakin arriskutsuen ekoizle txiki bezala erregistratzeko eskaera-orria Valentziako Generalitateko web orrian dago.

Hondakin arriskutsuen transferentziak egiteko, hondakin arriskutsuak ekoizten eta kudeatzen dituzten erakundeek indarrean dagoen dokumentazio-protokoloak dituen tramite administratibo sarriak eta errepikakorrek arinago egiteko asmoz, Aldaketa Klimatikorako Zuzendaritzak, 2004ko maiatzaren 24ean onarturiko Ebazpenean, ADCR plataforma telematikoa onartu zuen. Horrela, Ingurumen, Ur, Hirigintza eta Etxebizitza Conselleriaren web orriaren bitartez, duela bi urte ezkerro, hondakinak lekuz aldatu aurretik egin beharreko jakinarazpenak eta kontrol- eta jarraipen-dokumentuak tramitatzea ahalbidetu ditu.

Aplikazio horretara sartzeko erabiltzaile-izen bat eta password bat besterik ez dira behar. Hau da, ez da ez txartel edo ziurtagiri digitalik behar, eta Valentziako Generalitateko Ingurumen Kontseilaritzak erabiltzaile-izena eta gakoa ematen ditu behin hondakin arriskutsuen ekoizle txikien erregistroan izena eman eta gero.

8. taula. Valentziako Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
1998ko martxoaren 12ko Agindua	Valentziako Erkidegoko Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroa sortu eta arautzen da.
Abenduaren 12ko 10/2000 Legea	Valentziako Erkidegoko hondakinak.

Iturria: autoreek egina.

Andaluziako Autonomia Erkidegoa

Hondakin arriskutsuen ekoizle txikien erregistroan izena ematea derrigorrezkoa da, baina ez ordea hondakin ez-arriskutsuen kasuan. Izen-ematea Ingurumeneko Kontseilaritzaren lurralde-ordezkaritzetan egin behar da.

Andaluziako Autonomia Erkidegoan, hondakin arriskutsuen ekoizleek eta kudeatzaileek euren hondakinen dokumentua erregistratu beharra dute, bertan kantitatea, ezaugarriak, identifikazioa, jatorria, xedea, jasotzeko maiztasuna, garraioidea, emate-data eta abar azalduz.

Lehen ikusi den bezala, erregistro honetarako kontrol- eta jarraipen-dokumentuak erabiliko dira, kudeatzaileak hondakinak onartu dituela adierazten duten dokumentuak, eta hauek formalizatu ondoren jabegoaren eta arduraren transferentzia egingo da jatorrizko kudeatzailetik autorizatua den kudeatzaileera. Beraz, kudeatzailea hondakin arriskutsuen jabe bihurtuko da behin hauek jasotzen dituzenean.

Modu telematikoan tramite hau egin ahal izateko, ezinbestekoa da bai enpresak eta haren lantokiak Ingurumen Kontseilaritzak duen erregistroan izena ematea eta baimenduta egotea.

Andaluziako Autonomia Erkidegoaren barnean hondakinen lekualdaketak egiten direnean tramiteak modu telematikoan egiteko aukera dago. Horretarako, Andaluziako Batzarraren web orrian, administrazio elektronikoaren atalean hain zuzen, sarbidea aurki daiteke. Hori gauzatu ahal izateko, derrigorrezkoa da txartel edo ziurtagiri digital bat edukitzea lehen aiaptu diren tramiteak egin ahal izateko. IZENPEK igorritako txartela ere erabil daiteke (2002. urtean Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sorturiko ziurtagiritze-zerbitzua), baita Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalak (MTFN) sorturikoa ere.

9. taula. Andaluziako Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
Azaroaren 21eko 283/1995 Dekretua	Andaluziako Autonomia Erkidegoko hondakinen araua.
Uztailaren 9ko 7/2007 Legea	Ingurumenaren kalitaterako kudeaketa bateratua.

Iturria: autoreek egina.

Euskadiko Autonomia Erkidegoa

Autonomia-erkidego honetan, hondakin arriskutsuen ekoizle txikien nahiz hondakin ez-arriskutsuen ekoizleen erregistroan izena ematea derrigorrezkoa da. Eusko Jaurlaritzaren web orrian eskaera-orria eta erregistratzeko baldintzak aurki eta jaitsi daitezke.

Tramite guztiak IKS-eeM sistemaren bidez egingo dira, Ingurumen Informazioarako Kudeaketa Sistema Bateratua alegia. Berau, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak teknologia berriak erabiliz Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta biztanleentzat eskuragarri jartzen duen tresna da. Horra sartzeko ezinbestekoa da txartel elektronikoa edo digitalaren jabe izatea. EAEn txartel hau IZENPEK igortzen du.

10. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko araudia.

LEGEA	Legezko baldintza
3/1998 Legea	Orokorra, Euskadiko Ingurumena Babesten duena (98-03-28koa, 59. zk., EHAA)
259/1998 Dekretua	Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen du (EHAA 199. zk., 98-10-20).

Iturria: autoreek egina.

Ondorioak

Ingurumen-kudeaketarako politiken inguruan autonomia-erkidegoek dituzten araudi ezberdinak ez dira lagungarri lantokiak erkidego batean baino gehiagotan

dituzten enpresentzat. Erkidegoen artean desberdintasun nabariak ageri dira araudiari dagokionez.

Ondorengo taulan, sorturiko hondakin motaren erregistroari dagokionez, eskakizun-mailaren arabera autonomia-erkidegoen sailkapena azaltzen da.

	Hondakin mota	
Erregistroa nahitaezkoa?	Ez-arriskutsua	Arriskutsua
EZ	Nafarroa, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Madril, Katalunia, Valentzia	
BAI	Galizia, Aragoi, EAE	Nafarroa, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Madril, Katalunia, Valentzia, Galizia, EAE

Iturria: autoreek egina.

Beraz, enpresek sortzen dituzten hondakinak erregistratzeko beharrari dagokionez, Galizia, Aragoi eta Euskadi dira zorrotzenak. Halere, hondakinak ez-arriskutsuak direnean, autonomia-arau gehienetan erregistratzea ez da beharrezkoa.

Estatu mailako araudiak zorrotzagoa izan behar luke ingurumen-araudia behar beste garatu ez duten erkidegoekin, hauek ere Europako Komunitateko Direktibak duen espirituak aipatzen duen ingurumenaren babes mailarekin bat egiteko.

Bibliografia

- Comunicación de la Comisión de las Comunidades Europeas (COM (2005), 666): “Un paso adelante en el consumo sostenible de recursos: estrategia temática sobre prevención y reciclado de residuos”.
- Informe de la Comisión de las Comunidades Europeas (COM (2009) 633) sobre la aplicación de la legislación comunitaria en materia de residuos.
- ORDEN MAM/304/2002, de 8 de febrero, por la que se publican las operaciones de valorización y eliminación de residuos y la lista europea de residuos.
- Parlamento Europeo: Directiva marco sobre residuos (Directiva 2008/98/CE, de 19 de noviembre).
- Fronti de García, L. (2007): “El Protocolo de Kioto y los costes ambientales”, Universidad de Buenos Aires-Argentina - Revista del Instituto Internacional de Costos.
- Fundación Forum Ambiental (2006): Libro Blanco de Tecnologías de la Información Aplicadas al Sector Residuos Industriales.
- AENOR. UNE-EN ISO 14001:2004 Sistemas de gestión ambiental. Requisitos con orientación para su uso.
- Ley 22/2011, de 28 de julio, de residuos y suelos contaminados.
- RD 952/ 1997, de 20 de junio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986, Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos
- Welford, R. (2009): “Corporate Environmental Management, Systems and Strategies”, Earthscan, 2ª Edición.

